

# ANAITASUNA

197 zenb. 1970

URRILAK-15

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12

## IZENAK HAUZITAN

Alboan doan argazkiak arazo honetaz dioskuna hemen ere jarriko dugu, gaur guri dagozkizun lerroetan: «Se permiten los nombres extranjeros o regionales. Si tuvieran traducción usual al castellano, sólo se consignarán en esta lengua».

Beraz\*, ezin dira jarri, gaurko Espainiako legediaren arabera\*, Iñaki, Julen eta abar, Hauzitegietan\* Ignacio edo Julián jarriko dute ta. Ellzak onartzen ditu erderara itzul ditezkeenak ere, adibidez, alpatu ditugun Iñaki ta Julen, baina Estaduko legeak ez; eta kasu berean aurkitzen dira gallego eta katalan izenak. Beste gauza bat da lege horren egokitasuna. Gure ustez, hiru hizkuntzetako erakundeek\* zerbait egin behar lukete lege hori aldatzeko; baina hau beste baterako galdak izan liteke.

Zeintzuk dira orduan ume bati ezar lezikizko izenak? Ba, erderan, gaztelanian\*, itzulketarik ez dutenak. Hemen berezi egin behar dira hitzaren itzulketa eta hitzaren onomastika ordezkoa. Amaia-ren itzulketa El fin izango da, baina ordezkorik ez du erderazko onomastikan. Bestalde, Xabier edo Txaber izenaren etimologiazko itzulketa Casa Nueva izango da, baina haren ordezkoa erderaz Javier.

Zela jokatzeko dute Hauzitegiek arazo honetan? Batzuek Euskaltzaindiaren aholkua\* onartzen dute. Eta Euskaltzaindiak badio, euskal izena dela eta gaztelanian ez dela izen berdinek ezagutzen, haiak ezarri egiten dute, besterik gabe\*. Baina beste Hauzitegi batzuek, legeari «Interpretación restrictiva» delakoa eginez, eragozpenak jartzen dituzte, gehienetan ezjakintasun eta indokumentazio izugarria agerraraziz. Inoliz, euskal izen bat ezartze-

ko, erderazko nahiz rusozko bati eskatzen ez zaiona eskatzen da. Adibidez, legeak ez du eskatzen, izenak Santoralean agertu behar duenik, eta, esate baterako, literaturako pertsonala bat normalki jartzen da: Fabiola, Dulcinea, eta abar; baina «Euskaldunak» poemako Eledor izenak ez du tratatu bera hartzen. Ziortza izena

joan den mendean\* edo lehenago erabilia izan zen; baina kontuan eduki gabe, Andre Marien izenak jartzeko ohitura berria dela, baita Almudena, Loreto edo Rocío izenekin ere. Ba dira Hauzitegi batzuk, gurasoen esanera, beste xehetasunik\* gabe, zabaltasun guztiarekin legea interpretatzen dutenak ere.

### SECCION QUINTA

#### Del nombre y apellidos

#### SUBSECCION PRIMERA

##### Del nombre propio (1)

**Art. 192.** No se podrán imponer más de dos nombres simples, que se unirán por un guión, o de uno compuesto, y serán, en su caso, los únicos o primeros del bautismo.

Se permiten los nombres extranjeros o regionales. Si tuvieren traducción usual al castellano, sólo se consignarán en esta lengua.

Son nombres prohibidos por extravagantes los que por sí o en combinación con los apellidos resultan contrarios al decoro de la persona.

Se prohíbe también cualquier nombre que haga confusa la designación, por su pronunciación u ortografía exótica o por inducir, en su conjunto, a error sobre el sexo.

Guraso askok, beren umei euskal izena jarri nahian, non aukeratu ez dute jakiten. Ba dira lan batzuk, horretarako argitasun pixka bat eman lezaketenak. «La Gran Enciclopedia Vasca» delakoak argi-

taratu zuen Aingeru Irigarai euskaltzainaren nomenklature bat, baina ez ditu berezten itzulketa dutenak eta ez dutenak, eta gainera izen asko gelditzen dira oraindik kanpoan. Lazkanoko «Jaunaren Dela»

aldizkariak ere argitaratu du liburuxka bat. Honek ezarritako izen berri batzuk gogor samarrak dira, halen alde aurrera jo ahal izateko, ez gure iritzian, legearenean baizik. Dena dela, lan hoiak ba dute beren alde txalogarria. Baina lan osotua goa, gauzak hobeki berezten dituen eta xehetasun gehiago ematen duena eskatzen du herriak; eta lan hori Euskaltzaindiak, editorearen batek edo beste norbait, ahal denik eta bizkorren atera behar luke, gure ustez.

Hauzitegi batzuek ere, Irtzi subjektibak alde batera utzita, legeari Interpretazio zabalena emanik jokatu balute, eta dakienari entzunen ballote, denok irabazten aterako gineteke. Hemen ere, «aggiornamento» apur bat ez lizateke gaizki etorriko.

### Mitxelena jaunaren mintzaldia Donostian

Joan dan irailaren azkenetan, hitzaldi batzuk eman izan ditu Donostian Mitxelena jaunak, «Euskera Batua» galtzat harturik. Euskera batuaren hauzia irabazita dagoela iruditzen jaku. Hala ere, orain, epe\* berri honetan, euskal aditza\* batzea izanen da arazorik zallena.

**HAMABI HARRIETATIK**

Aurten ere, urtero legez, mendian hildakoen gomuta<sup>\*</sup> eguna ospatu zan Betsaldeko mugan, Irailaren<sup>\*</sup> 20-an. Aurtengoa beste urte batzuetan baino hunkigarriagoa<sup>\*</sup> izan zan, daroagun urtean Hego Euskal Herrian 9 mendizale hil direlako. Hareen alde meza bat eskalni<sup>\*</sup> zan.

Urriaren 1-ean, Munduko Akordeol Jotzaileen XX. Txapelketa ospatu da Txekoslovakian. Bertara Joan Dirrenetik bi bizkaitarrak izan dira, bata Bilboko eta bestea Durangokoa. Azken hau, Luis Angel Sarobe, 14 urtekoa, Durangoko Eusebio Bilbao itsuaren ikaslea.

Iorretako udaletxe<sup>\*</sup> zaharra Durangoko kalegintza berriagatik bota egin behar dabela ta, han dagozen mahai eta aulki zaharrak eskatu egin eutsoezan Durangoko udalari Gerediaga elkarteok, euren batzar lekurako. Baletza jaso dabe. Iorretako enparantzan<sup>\*</sup> egozen eskola zaharrak ere bota egin ditue.

Irailaren 20-an, omenaldi bat egin jakon, Zaldibarren, bertako midiku izandako Severo Arantzamendi zanari, bertako abesbatzak antolatuta. Meza bategaz eman jakon hasiera egunari, eta herriko dantza taldearen saio labur bategaz jarraitu zan. Ondoren, haren izena eroango dauan kalean, Don Severoren bizitza eta lana goratu zituan Balendik Lasuenek hitz labur batzuek; eta Bizkaiko Diputazioko lehendakariak agirian ipini eban haren izena daroan kaleko burdin plaka.

Irailaren 19 eta 20-an, Durangoko «Gogokoa» dantza aretoan<sup>\*</sup>, Andoni abeslaria euki genduan kantatzen.

Irailaren 20-tik aurrera, Nestor Basterrechea Bermeotarraren erakusketa bat euki dogu Durangoko arte gelan. Erakusketa honetan, pinturak, argazkiak<sup>\*</sup> eta eskulturak agertu ditu artista honek.

Irailaren azkenetan, Durangoko seme baten erakusketa bat euki ei dogu. José Joaquín Arce haren izena. Hamabi urte daroaz atzerrian, Hego Amerikan; orain hiru urte hasi ei da arte lanean. Artista honek «taracea» dalakoak egiten ditu, eta mundu guztian bera ta beste lau baino ez ei dagoz. «Taracea» kolore askotako egur desberdinak egiten da. Bere kuadruean nahastean erabiltzen ditu intxaur, teka, gerizi<sup>\*</sup>, haritz eta kaoba zatitxoak.

Bizkaiko Diputazioak, beste gauza batzuen artean, honeexek onartu eta erabaki ditu orainengo: Datorren urtarrilaren hasieratik, debekatua izango da, Diputazioaren ardurapean dagozen bideetan, burdinazko burpilak dituen gurdiakaz<sup>\*</sup> ibiltzea. Erabaki honen urratzaileak multatuak izango dira. Hiru miloi pezeta ematen dira Ermutik Gomezeagara doan bidea konpontzeko, eta, Ermutik Arrangizganarako bidean, lurrari eusteko hormak egin daitezten. 300 mila pezeta, Mañariko udaletxean<sup>\*</sup> egin diren berriztapenak eta tresna erosketak ordaintzeko.

Durangoko «Congregación Mariana»-koek eta «Alkartasuna» pelota elkarteok antolatuta, hasiera eman jako Durango aldeko Esku Pelotarien IV. Txapelketari. Igande ta jaie egunean izango dira partidak.

Aurten ere ez dira ospatu, Izurtzan, Iraileko Santa Agedaren eta Erdotzako Amaren Jaiek.

Okerrik ez bada, urriaren 31-n eta hazilaren<sup>\*</sup> 1-ean Euskal Liburu ta Diskoen V. Azoka<sup>\*</sup> izango dogu Durangoko Andra Mari elizpean. Durangoaldeko Gerediaga elkarteak antolatuta dago beti bezala, eta gaur egunean Euskal Herrian oñtunenarikoa da.

Irailaren 23-an, laurogei ta hamaika urte zituala hil zan Durangon Esteban Bilbao Egia jauna. Bilbon jaloa, Deustuko Ikastetxe Nagusian amaltu zituan «Derecho» ta «Filosofía y Letras»-ko ikaskizunak. Errepublikaren denboran, Tolosa ta Lizarratik<sup>\*</sup>, karlisten diputadu atera zan. Durangon harapatu eban Espainiako gerrak. Espeperatua eta Bilboko alkateagaz trukatu izan zan. Gerra amaitutakoan, 22 urtetan Madrileko «Cortes» batzarreko lehendakaria izan zan. Irailaren 26-an izan ziren haren hiletak Andra Mari elizan, eta bere laguntzaz egindako monja karmeldarren komentuan lurperatua izan zan.

Irailaren 20-an, Urkioalako elizan, bost bozetara abestu eban Aita Iruarizagaren euskerazko meza Lejonako «Donibane» abesbatzak. Amaitutakoan, euskal abesti salo bat eskaini eban ellz aurreko zelain.

Neska arteko futbola ugarituz doa. Irailaren 27-an, Durangon, bertako «Kemen» eta Mungiko talde baten arteko neurketa euki genduan. Mungiarrek 2-1 gelditu ziren irabazle.

Irailaren 20-an, Bizkaiko Ardi Zakurren VIII. Txapelketa ospatu zan Burtzeñan. Mañariko Jose Luis Jaloren «Jai» zakurra gelditu zan lehenen; bigarrena ta hirugarrena ere Durangoaldeko zakurrak izan ziren. Hurrengo igandean Oñatin ospatutako Nazio arteko Ardi Zakurren XI. Txapelketan, hamar zakurren artean Mañariko Serafin Etxanoberen «Riki» zakurrak jaso eban haginkada onena. Ardriek gaitzen ote da Mañarlan?

JOAN ANTONIO AROMA

**Manuel Estonba apaizaren lan eta helburuak**

Joan dan martxoko San Jose egunean, euskal misioen egunean, sermoi jakingarri bat egin eban, eta, beste gauza batzuen artean, hauxe esan eban:

«Euskal Sinai mendi honetara etorri ei dira gizaldiz gizaldi gure erromesak<sup>\*</sup>, Jainkoari eskerrak ematera, bekatuon barkazioa lortu eta fedea sendotzera. Horregatik, euskaldun otoiñtz leku honetan, lau edo bost apaiz egongo gara beti, Inongo erromes guztien zain, eta euren zuzendari eta arduradun.

«Holan, bat egingo dira euskaldunen fede zaharra eta misio lu- rretako jendearen fede berria.

«Gure lehenengo asmoa, apaiz etxea berriztatzea da: txukundu ta handitu, ahalik eta apaizik gehien bertan sartu ta bizi ahal izateko. Bigarren, eliz Inguru guztiak garbitu. Aulki asko behar dira, bide bazterretan eta zuhaltz<sup>\*</sup> inguruetan. Baita komunak ere ellz ostein. Hirugarrenez, otzaretxoak ere bai, Inguruetako paperak eta zikin guztiak batzeko.

«Eta eliza? Guk han, misioetan, hainbeste ellza egin ondoren, ezin dogu geure geurea dogun hau horrela bertan behera utzi. Zerodozer egin behar da. Gaitz da, izan ere, lehengo lerro astun, handi eta garesti<sup>\*</sup> haretatik jarraitzea. Baina zergatik lotu ez, erra- zago eta merkeago dan bide bati?

«Horrelako asmoak ditugu. Zuek ere zerbait asma. Eta guri adie- razki. Ea danon artean zerodozer egiten dogun.

«Egin, ondo egin eta laster egin».

**LARRAUN**

Irailaren<sup>\*</sup> 13-an, Lekunberrin bildu<sup>\*</sup> gara Larraun bailarako<sup>\*</sup> 12 herri. Zer dela ta? Eta aurrera begira, zer helbururekin<sup>\*</sup>? Hitz gutitan saiatuko naiz galde<sup>\*</sup> hauel erantzuten.

Aurrena: Zer dela ta? Egun bat elkarrekin iragateko<sup>\*</sup>. Jendeak egun hau gogoz har dezan, herri bakoitzari eskatu diogu, jaialdi honetara ekartzeko joko, dantza edo berel bururatzen zalen beste zerbait. Horrela, guk bailarakook egingo dugu ez bakarrik «jaia organizatu», baizik eta «jaia egin». Aurten izan da, aurreneko aldiz jaialdi hau egiten dela, eta lehenbiziko puntu honetan jendeak ez du asko erantzun.

Bigarrena: Eta aurrera begira, zer helbururekin? Orain arte, bai- laran, heri batek besteari harriak botatzen ibili garela ikusirik, he- mendik aurrera herrietan daduzkagun problemak eta beharrak, el- karri lagunduz konpondu nahi genituzke. Hau da, harreman bat sortarazi nahi dugu, batez ere gazteen artean.

Nire ustez, jaialdian izan diren gauza nabarmenenak, hauk izan dira: Gazte batzuek herriko dantza bat, «Iribasko Ingurutxo» dan- tzatu dute. Benetan txalotu beharra dago gazte hauek egin duten lana. Bazkaltzeko, bailara guztiatik 250 elkartu ginen, eta Natxo eta Izar, Txomin, «Bitz» Irurako bikotea eta beste batzuk egon ziren abesti saioan kantari. Zoritxarrez, festival denboran, jende batzuek gaizki jokatu zuten, beren oihu eta zalapartekin ez baitzeukuten en- tzuten utzi.

**AZKOITIA****Usteltzen**

Azkenaldi honetan, gure herrian, beste herri gehienetan bezala, gazte askok behintzat dantza tokietan bukatzen<sup>\*</sup> dituzte jalegune- tako ebasioak.

Kalean, berriz, ez da Inor ikusten, neska-mutil zaharrak, gizon ezkonduak tabernaz taberna, emakume ezkonduak beren haur<sup>\*</sup> txi- kiekín, eta gazte banaka batzuk baizik.

Egoera hau herri askotan ikusten da, eta oso normala Iruditzen zaio askori, ez guri. Egoera honen arrazoietan sakonduz, puntu bat- zuku agerrarazi nahi ditugu. Mutilak garenez, geure aldetik bakarrik ikusiko dugu gauza.

Kakoa hauxe da: Jalegunetan, mutilak dantza tokietara joaten dira neska bila. Zergatik? Pertsonak ere ba gara; eta neskek han izaten baldin badira, mutilak ere bai.

Askotan, ordea, suertetik ez da izaten. Erreprimittuta gelditzen gara. Baina hurrengoan ere, berdin. Izan ere, zer aurki kalean?

Eta egoera honetan beti, asteak joan eta asteak etorri, ebasio bila, alienatuta eta esplotatuta. Noiz arte? Irteerak<sup>\*</sup> ba direla uste dugu; soluzioa geure eskuetan dagoela, neurri handienean be- hintzat.

**Herriko zenbait gorabehera**

Datorren urrian emanen dio hasiera ikastolak aurtengo ekinal- diari. Igaz hirurogei haur zirenak, aurten ehunearaino lgan<sup>\*</sup> zaizki- gu. Ezin izan dituzte haur guztiak hartu.

Urtero bezala, aurten ere alfabetatze salo bat izanen da. Ge- gozkoa lizateke gazte ugari etortzea. Hau irakurtzen duten guztiek eskatuko genieke sala litezela gazte hauen bila.

Herriko Gazteen Elkartearen batzar nagusia hilabete honetan izanen da.

«Caritas»-ek ekarririk anbulantzia martxan dago.

LAUROK

## BASAURI

### Taldeen edo «kuadrillen» inguruan

Basauri, Balmasinoko aldatzean egina dago. Bere aurrerapena fabrikei zor deutse. Firestone, Edesa, Ceplástica, Basconia eta abar, bere inguruetan dira. Orain urte batzuk, mapetan ez zan agertu ere egiten. Baina, gaur egun, 50.000 bizilagun dituke\*.

Bai personak eta bai etxeak elkar piltaturik dagoz. Ez dago leku berderik, ez jolas tokirik: umek kaleetan jolastu behar izaten dabe. 250 taberna baino gehiago dira, balna herriko liburutegia oso behartsu aurkitzen da.

Egoera honetan, harrigarria ta sinestu ezina da, festak direla ta, gazteen artean hainbat talde sortzea. Zelan, Basaurin, personalidade bako herri honetan, sortu izan dira honako taldeak? Eta zer adierazten dabe talde edo «kuadrilla» honeek?

Orain urte bi sortu ziren San Faustoetan. Hasieran gazte gutxi batzuen asmoa izan arren, berehalaxe indartu eta ugaritu ziren gazteen artean. Ez zan ahalegin haundirik behar izan, gaztedi osoa mugimenduan jartzeko. Hamar talde sortu izan ziren: Auspoak, Edurre, Los Incas, Laguntasuna, Ogetabat, Piratas, Turcos, Txikerrak, Zigorrak eta Zoroak. Abestiak eta dantzak ikasteko zerbait atondu\* zan. Jendea harrিতuta geratu zan. Jaien giroa guztiz aldatu zan. Gazteek kaleak bete zituen, euren jantziekin, kantuekin eta, zergatik ez, euren zaratekin. Basauriko Lehen Euskal Jala antolatuta zan.

Urtean barrena ez eben talde honeek ezer gehiagorik egiten. Baina zelanbait betetzen eben euren zeregina.

Ihazko\* San Faustoetan, berriro biztu ziren eta gorputz hartu eben. Eztabaida gogor bat izan zan: ea «Erregina» hautatzea\* onartzen zan ala ez. Azkenean baietzaren aldekoek irabazi eben. Memento honetan, taldeetako bazkideak beste-horrenbestetu egin ziren. Eta antolatzaileek azkarrago betetzen eben euren zeregina.

Aurten, jaiak antolatzerakoan, berriro ere biztu egin dira taldeak. Komisio bat egin dabe; talde bakoitzak ordezkari bi izango ditu komisio horretan. Jaletarako programa egin dabe. Lehengo urte bietan egindakoak, konfiantza haundia sortarazi dau eurengan. Ezer gauza garbirik badago, hauxe da: gazteek eurek egin behar dituela herriko jaiak.

Baina sortu dira arazo batzuk ere. San Migelen eta Kareagan talde bi dira: Indar Gazte eta Unas. Honeek, parte hartu nahi dabe jaletan. Baina beste talde mordoa batek ez dau parte hartu gura, ez jaien programa egiten, ez jaiak antolatzen. Batzuentzat, parte hartzea onurakorra\* da; baina beste batzuen eritziz, ez da onurakorra.

Historia labur hau bigiratzean, berehalaxe\* ikusten da taldeek euki leikeen indarra. Lehenengotaz sortu zirenak, jaiak ondo pasatzeko baino ez ziren izan. Orain, osterak\*, jaletako programa bera egin gura dabe. Hau da, herri osoak parte hartu daiala herriko jaletan.

Gure gazteek ez dabe nahi ikusle bezala gelditzerik; hauxe da garrantzitsuena. Oraingo, jalekin bakarrik arduratzen dira. Baina, geroago, beste gauza batzuekin ere arduratuko dira. Taldeetan 600 gazte dira, nahiz eta Basaurin askotaz ere gehiago izan. Ezer arrisurik izatekotan, bat ba dabe: egoera, azal samarretik ikustea. Urtean barrena, oso gutxi arduratzen dira, oraindik, herriko arazoekin.

IÑAKI ZIARSOLO

## BERMEO

### Andra Mariak

Igaro dira aurtengo jaiak. Irailaren\* 6-tik 16-ra, 10 egunetan ospatu dira. Euki dabe gure gazteek, neskek eta mutilek, algara, dantza eta zarata egiteko era. Eta bai egin ere, zintzotasun eta alaitasunez, bermeotarrek dagokienez. Jai honeetan, Bermeoko Zaindaria dan Almonikako Andra Mariaren jaiak ospatzen ditugu bermeotarrok. Meza entzutea asko ta asko joaten gara gure zaindarien ermitatxora. Bertako parroko dan Don Hektor jaunak esan euskunez, 10. mendetik\* el dogu bermeotarrok Birjina honen ganako debozioa. Beraz\*, Begonia ta Arantzazukoaren ganakoa baino zaharragoa.

Jai honeetan musika asko izan da, beti bezala. Baina, izan dira beste zerikusit batzuk ere, Udalak\* egindako programak (ederto argitaratuak) iragartzen eban legez. «Gaztetxu» eta «Herriko Lagunak» ume taldeen lana aipatu eta goratu behar dogu lehenengo ta behin. Euskal dantza jatorrekin batak eta txistu soinu gozoekin besteak, halako jai usain pozgarri bat eman deutsoe gure herriari. Barrueta margolari elkarteak kuadru erakusketa garrantzitsu bat eratu eban, herriko eta kanpoko margolariakaz.

Hilabetearen 10-ean, fraileen komentuan, Herri Meza eder bat izan zan: txalaparta, bertsolari ta guzti. Jende asko joan ginen meza horretara, eta gogoratzeko esperientzia hunkigarri\* bat izan genduan. Zorionak fraileel.

Abeslari berriek ere euren eguna izan eben egun horretan. Neska-mutil asko dira Bermeon kitarrakaz kantatzen ari direnak, eta ederto kantatu ere. Bermeotarrak beti izan gara kantariak. Ea baten batek fama haundia hartzen dauan eta telebisiolan ikusten dogun kantatzen.

Santa Eufemia egunean, 16-an, Kantauriko «trainerillen» estropada izan zan. Castro Urdialeskoek irabazi eben. Baserritar asko eta kanpoko jendetza ikaragarria etorri zan egun horretan Bermeora. Futbol eta pelota partiduak ikusi genduzan, haizkolari eta harri-jasotzaileak.

Jaiak amaitutakoan, biharamunean, gizonak barriz ere itsasora, atunetan. Kostera hau, orain arte, ez da hain txarra izan. Ea Gobonetararte jarraitzen dauan holan eta bokartetako\* hutsunea betetzen.

### Deminikuko ermita

Deminiku Bermeoko hauzune bat da. Herriko famillek eta erakundeek\* emandako laguntzagaz eta Aita Justo Anasagasti frantziskotararen ardurapean, Deminikuko ermita konpondu eta berriztatu ahal izan da. Irailaren 13-an izan zan aldare berriaren bedeinkazioa. Ederto gelditu da ermitatxu hau; eta, harako bidea ona denez gero, sarriago joango dira bermeotarrak hauzune horretara. Ama Birjinari otoitz egitera.

PEREZ BILBAO

## LAZKANO

### Gazte batzuen mina

Orain dantzari taldeen arloan dihardugu.

Herri honetan, besteetan bezalatsu, ba dugu dantzarako grina. Aspaldidanik ari\* gara, batzuk irakasten eta besteak ikasten. Aurrez, ohar bezala, adierazi nahi nuke, dantzan irakastea ez dela hain lan erraza. Eraman\* handia behar da edukil.

Batez ere, Lazkanoko hiru gaztek imini duten apeta\* eta ardura agerrarazi nahi nuke. Iragan\* direneko zenbait urtetan barrena, eten gabe jardun izan dute, 12 urtetik 16-ra eta 6-tik 9-ra bitarteko berrogei eta hamar bat neska-mutileri irakasten. Beren jardunaldiak herri askotara zabaltu dituzte, edonon txaloak entzunez, nahiz eta dirurik ez jaso. Sekula ez dute ezer eskatu. Bere diotenez, kosta ere egin zale ederki, haurrak\* dantza bidean jartzea.

Hau dena gogoan harturik, beren mina atarira jalgi\* gabe ezin egon dira. «Herrizale» zenbaitzuren honako ateraldi hau belarriratu zale:

- lehenengo, dantzan irakasteko norberak ikasi behar dik.
- zuek ondo aprobetxatzen zarete, dantzarien jaiak direla ta, hain kontura jan eta edan bapo eginez, eta abar.
- haur holec egiten dituzten dantzek ez diate batere balio.

—Eta abar, eta abar. Erderaz, **et cétera, et cétera.**

Stop. Nahikoa dugu. Euskal Herri minberatu honetan, Euskal Herri eri\* eta zultatu honetan lehen ere ba dugu behar hainbat akuilukada pozointsurik\*. Egin egin behar dugu, eta ez miztoarekin\*. Ahalegin batean gehiago ezin duenari lagundu egin behar diogu, eta ez eztenarekin zultatu.

Jarrai aurrera, Lazkanoko gazte trebeok. Kanpoko herrietatik berderen\* izanen ahal duzue zuen dantzaritxoek «hiruko pauso» galtzetzia\* estimatzen eta zuel deitzen saiatuko denik.

Gertaera honek Irudi bat sortarazten daut: Euskal Herria basabide malkor bat dugu, agian\*, sasoi honetan. Basabidean gora ldi pare bat dator nekearen nekez, uztapean elkar eginik, isil isilik, gurdi\* astunari tira egin nahian, bizkarra odoletan. Bizkarra odoletan, akuilukada zorrotzez eta gurdi gainean joan nahi duten «herri-zale» erosen\* biraoez.

Nik maite ditut, hala ere, ldi mesprezatuen oinkada baldarrak eta dantzari salatuen «hiruko pauso» apalak. Bat..., bi..., hiru... Aida, idil Ez egon geldil. Nolzbait emanen duzue «laugarren pausotxo» ere.

M. USABIAGA

## Euskaltzaindiaren batzarra Bilbon

Hilabetero bezala, elkartu izan dira Joan dan Irallean\* Euskaltzaindikoak Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean. Guztitara, 29 euskaltzain bildu ziren, tendentzia guztietarikoak eta giro nahiko bero batetan.

Jose Luis Alvarez jaunaren eskutitz bat irakurri zan. Aditz\* batua osotu eta konpontzeko, Euskaltzaindiak batzorde berezi bat seinalatu dalala eskatzen eban. Begi onez entzun zan eskari hau. Era berean, Jon Etxaide jaunak egindako karta bat ere irakurri zan. Bertan eskatzen eban, Nemesio Etxanizek «Bota egin dute» izenburuarekin agerturiko artikulua Euskaltzaindiak kondenatu dalala, haren itxura gabetasunagatik. Charrington apaiz jaunak eskatu eban, Euskaltzaindiak karta bat bidaldu dalala kolejio eta irakaskintza etxe guztietara, euskerarekin arduratu daitezela eskatuz.

Gero, Espainiako hizkuntzei buruz Nafarroan egingo dan «Symposium» dalako hori aipatu zan. Hurrengo batzarra Zuberoko Maulen\* egitea erabaki zan, orain ehun urte jaio zan Salaberri euskal idazlearen oroitzapenetan.

## Komertzio Eskolen elkarteak

Joan dan Irailaren 29-an, San Migel egunean, Bilbon elkartu izan ziren, Bordele\*, Paue\*, Gasteiz, Iruñe eta Bilboko Komertzio Eskoletako ordezkariak. Euren amtsa, hasteko, elkarrekin harreman gehiago eukitzea da. Geroago, mugaz handiko eskolekin elkarte bat egiteko asmotan dabilta. Holan, ikasketak itxura batekoak izanik, bata bestea aberastuz jokatzekotan dira.

## «Agora» Saria

Donostian, antolatzaileak mahai puruko zirela, «Agora» sariak banatu ziren, urtero bezala, Joan dan Irallean. Jabier Azurmendik irabazi eban euskal poesiaren saria, «Izatea» lanarekin. Sinesmenak munduari ematen deutson sentidua kantatzen dau bere hitz neurtuetan. Ondarabiko Fernando Artolak ohorezko alpamena lortu eban, «Gizadi Kanta» lanarekin.

## «Ikasi euskera»

Pasalan (Gipuzkoan), «Alkartasuna» erakundeak\*, euskal jakintza arloaren garrantzia ikusirik, eta hari Indarra eman nahiez, ohar bat zabaldu dau hauzo guztietan, 14 urtetatik gorako gazteek euskera ikastera dei eginez.

## «Euskerazaleak» euskera irakasten

Urriaren 14-ean hasita, euskera ikasteko nahiz hobeagotzeko, eskolak emango dira Bilbon, «Euskerazaleak» elkarteak antolatutrik. Xehetasun\* gehiagorako, deitu: «Euskerazaleak», Colón de Lareategui, 14. Bilbao. Tel. 24 50 59.

## Bilboko «La Gaceta del Norte» egunkarian

### «Herri Kirolak»

Bilboko erdal egunkari haundiek ez dabe, gaurkoz, behin ere ezer euskeraz argitaratzen, hilen eskelak izan ezik. Orain, «La Gaceta del Norte» egunkariak\* lehenago «Deporte Rural» izenburuarekin ekartzen eban sailari, «Herri Kirolak» izena ezarri deutso. Euskaldun jendearen pozerako, titulu horrek H bat eta K bi ditu.

## «Ez dok amairu» taldea

Urriaren 8-an, Urnietan ari izango da. Urriaren 10-ean, Bilboko Torre Urizar hauzunean (Mikel Laboa, Zabala eta Txalaparta). Urriaren 11-n, Benito Lertxundi Irisarrin (Nafarroa Beherean).

## Natxo, Itziar eta Mario kantariak

Urriaren 3-an Galdakanon izan ziren. 4-ean Durangoko lorretan, eta 10-ean Torre Urizar, Bilboko hauzunean.

## «Irakur Sail»-en liburu berria

Egunotan argitara emateko dira «Irakur Sail» taldekoak B. Russell-en «Iritzak» deituriko liburua. Aurrera, jaunak!

## Euskal jaia Urretxuan (Gipuzkoan)

Joan dan Irailaren azkenetan, euskal jai bat egin zan zan Urretxuan. Andres Calvo eta Francisco Javier Aguadok euren kuadroak agertu zituen. Estitxu, Oskarbi, Itxaropen, Zumarragako trikiti-soinulariek eta Galdakanoko Andra Mari taldekoek euren saioak eskaini\* zituen. Dantzariak ere izan ziren.

## Umeen euskal jaia Aretxabaletan (Gipuzkoan)

«Alkar» elkarteok eraturik, umeen euskal jaia izan zan Aretxabaletan, irailaren 20-an. Txistulari txikien eta haur dantzarien sariketa.

## Euskaltzaleen biltzarra Larzabalen (Nafarroa Beherean)

Irailaren 27-an ospatu izan da Larzabalen euskal kantarien jai bat. Jai honetan, kantariak, bertsolariak eta gaiteroak parte hartu izan dabe. Antolatzaile nagusia Labeguerie Jauna izan da.

## Errendariar soinularia Europako txapelketan

Joakin Ansa Mujika, 8 urteko mutikoak, Alemaniako Bonn-en egindako Europako Soinalariaren Txapelketan parte hartu dau. Berrari egokion maila, «Bambino B» izan zan. «Italia», guztiek jo beharrezko doinua, eta berak aukeratutako «Pequeño Cosaco» jo zituan.

## «Oskarbi» kantari taldearen disko berria

Oraindik urte bete baino ez da, «Oskarbi» taldekoek disko txiki bat atera ebela. Orain, 13 kanturekin, «long play» bat atera dabe. Talde honek asko aurreratu dalala entzuten da. Instrumentuen laguntza aldetik batez ere, heldutasun bat ikusten ei jako.

Irailaren 26-an, «Centro de Atracción y Turismo»-k antolatutrik, kanta saio luze bat eskaini eban, Donostiako Trinidad plazaan.

### Euskera, jalgi\* hadi plazara!

## Luis Maria Guinea musika ikasketak egitera

Irailaren 19-an, «Manuel Iradier» deritxon kantari taldeak agurrezko omenaldi bat egin eutson, taldeko tenore bakarlarri dan Luis Maria Guineari. Irailaren 21-ean, Madrilera Joan da, kantu ikasketak osotzera. Itxaropen haundia dago Gastelzen gazte honengan. Udalak\* ere diru laguntza bat eman deutso.

## «Olaeta» dantzari taldea Ameriketara

Oso ezaguna dan «Olaeta» dantza edo ballet taldea, Irailaren 20-an atera zan Amerika aldera, hiru hilabeteko osterat\* bat handik zehar egitera. 76 saio eginen ditue.

## «Araba» orfeioa Oñatin

San Migel egunean, Gasteizko «Araba» orfeoiak kanta saio bat eman eban Gipuzkoako Oñatin, berak bakarrik jaialdi osoa betetuz.

## Altzako jaiak

Irailaren 20-an ospatu izan ziren Jalak Donostiako Altza hauzunean. Bertan izan ziren Azpillaga ta Lopategi bertsolariak, Alegiko txistulari ta dantzariak, Ezelza anaiak, eta abar.

## Haurren eguna Oñatin

Irailaren 21-ean, Haurren Eguna ospatu eben oñatiarrek. Oñati eta inguruko haurrak, ezpatadantzari ta baserritar jantziarik agertu ziren. Jaialdi ederra izan zan. Baina kontuz trapuekin!

## Bost irundar soinulari Alemanian

Soinularien Europako Txapelketara, 18 soinulari giputz Joan ziren. Eurotarik 5 irundarrak. Hona hemen irabazitako sariak: Jose Jabier Muguruzak, Jose Frantzisko Etxebarriak, Fermintxo Muguruzak, Jose Manuel Ladron de Guevarak eta Maria Isabel Martinezek Urrezko Ikurra eta Diploma. Jose Jabier Muguruzak, baita «Ohorezko Oihala» deritxon sari berezia ere.

## SS-100.000

Irailaren 21-ean eman izan zan Donostian 100.000. matrikula numeroa. Numero biribil hori Tolosako Florentino Moselles jaunaren automobilak daroa.

## Iruñean 40 emakume Judo ikasten

Oraintsu arte, Judoa gizonezkoentzako deporte bat balitz bezala ikusten izan dogu. Baina laster batean, Iruñeko 40 emakumek behera botako dabe uste ustel hori. Hor dabilta astero, su ta ke, kirola hau ikasten. Esan beharra dago, Judoa ez dala burruka bat, joko garbi bat baizik. Dana dala, eta kontrako albistek jasotzen ez dogun bitartean, ez Itxaron emakume honeengandik ezelako «gerillorik», gorputz lirain batzuk baino.

## Seve Peña Ararat mendira

Mendigoizale jator dan Seve Peñak postal bat bidaldu deutso Manuel Zelaia, 92 urteko Donostiako mendigoizaleari, Turkiako Ararat tontorretik. Hainbeste zorizko albiste entzuten izan dogu aspaldion mendigoizaleen artean. Guztiak ez dira berdinak. Horra hor Severen nagusitasuna, Ararat mendiko tontorrean. Zorlonak! Seve hau Xabier Peña euskal gramatikalarriaren anala da.

## Sei mendigoizale euskaldun Hoggar mendietara

Sahara eremuaren erdian aurkitzen da Hoggar deritxon mendi talde bat. Aldatz gogorak eta hotz-bero haundiak ei dira bertan. «Club Deportivo Navarro» elkarteko sei gazte, hala ere, harantza abiatu dira. Mendi honek, Sahara erdian, 650.000 kilometro kua dradu betetzen ditue, eta gehienak 3.000 metrotik gorakoak dira. Gazteen izenak, Carlos Santagitarla, Gregorio ta Jose Ignacio Ariz, Ignacio Tapia, Abel Elvira eta Ignacio Bidaurreta.

## Basauriko «Edesa» taldeko mendigoizaleak Cornon mendian

Cornon mendi gallurrak 2.140 metro ditu, eta «Edesa» taldeko mendigoizaleek buzoil bat jarri izan dabe haren gainean. Buzoi horren oinean jarraiko hau irakurtzen da: «Honor y gloria a los que dieron su vida por la montaña, en el más noble de los deportes.» Ez dogu uste batere arrazoiakoa danik, mendiakatik gizonak bere bizia ematea.

## Andres Gandarias eta Miren Karmele Zuazua ezkondu dira

Irailaren 30-ean, Durangoaldeko Atxondoko elizan ezkondu izan dira Gandarias txirrindulari ospetsua eta Miren Karmele Zuazua neskatilla. Eliz testigantza eta ezkon bedeinkazioa Mariano Gandarias txirrindulariaren anaiak egin zituan.

## Larrauri jauna, Iruñeko Gotzain Laguntzaile

Jose Maria Larrauri Lafuente jauna, Gasteizen 1918-an jaloa, Albaceteko seminarioan zuzendari izana, orain Tabera Kardinalaren Gotzain Laguntzaile izendatu dabe. Era honetako gotzain bat izendatzeko, Erromak zuzenki jokutzen dau, Espainiako Estatuarekin tratatu barik.

## Aloisi Masella Kardinala hil da

91 urte zituala hil da Erroman Aloisi Masella Kardinala, Joan dan irailaren azken egunetan. Pio XII.k izendatu eban kardinal. Portugal, Chile eta Brasilen Nuntzio izan zan. Orain 130 kardinal gelditzen dira.

## Andaluzia eta Galiziako Gotzainak elkaturik

Urriaren 19-an elkartuko dira Andaluziako gotzainak Cordoban. Lehentxoago, Galiziakoak bildu ziren. Euskal Herrietako gotzainak ez dira behin ere elkartu. Joan zan neguan Nafarroako Ziordian bildu ziren Donostia, Iruñe eta Bilbokoa, «liturgiak» mintzatzeko. Herriak, fededun herriak batez ere, behin eta berriro eskatzen dau, Euskal Herrietako gotzainak elkartu daitezela, eskualde\* osoari dagokiozen arazoak elkar harturik aipatu eta erabakitzeko.

## Fruta batzea Nafarroako Erriberan

Orain arte batutako albarikoke edo mertxika, 70.000 kilo izan dira, 450.000 pezetaren balioa eginez. Baina fruta mota hau ez da produktoreen gogokoa, izotzak bizkor samar hondatzen dau eta.

Madari eta makatzetan, 250.000 kilo batu dira. Batez beste, 6,25 pezetatan saldurik, 1.566.000 pezeta eman ditue. I haz\* baino gehiago hartu da, baina 68 eta 67-an baino gutxiago.

Beranduko melokotoiak ez dira oraindik bildu. Baina, uste denez, ihaz baino bi bider gehiago batuko da. 700.000 kilo kalkulaten dira, eta, 13,95 pezetatan saldurik, 9,5 miloi pezeta egingo ditue. Zoritxarrez, aurten sikateak ez deutso utzi melokotoiari ondo gizontzen.

Guztitarra, 15 miloi pezeta egingo ditu fruta uzta\* Nafarroako Erriberan.

## Araba aldeko mahastiak

Batez beste, mahats ona batzen ari\* dira Araban, baina ez hain ugaria. Zenbait tokitan, mahasti asko hondatu eban harriak.

## Bizkaitar arrantzaleen kezka ta burrukak

Bizkaitar arrantzaleek burruka gogorak izan ditue Canarias aldeko Hierro uharte\* inguruan. Aspalditik dabilta bizkaitarrak inguru haretan, bertan aurkitzen dan atun ugariagatik. Esperientzia gehiago eta ontzi hobeak izateagatik, bizkaitarrek arrain guztia harripatzen ebela, Hierro uhartekoan kalterako, inoen\* Canariastarrek. Legeak, ostera, ez dino ezer horretaz.

## Nafarroako lurgintza

Nafarora aldeko 85.000 familia edo, hestu samar aurkitzen dira. Tomatea, kiloko pezeta batetan ere saldu ezinik ibili dira. Bilbon, ostera\*, tomateak 15 bat pezeta egiten dau kiloko.

## Hiru lantegi gelditurik

«Muebles Alfa», «Arruti» eta «Ayala» lantegietako beharginak lanik gabe aurkitzen dira, «Convenio Colectivo» dalakoarekin ez baitagoz konforme. Langileok eguneko eta bakoitzeko 25 pezeta gehiago eskatzen dabe. Arazoa ez da konpondu, guk lerro honek eskribatzen ditugun uanean behintzat. Hiru lantegion artean, 450 bat langilerentzako ogibidea sortzen da.

## «Alava agrícola, forestal, ganadera»

Honetaraxe deitzen deutso «La Gaceta del Norte» Bilboko egunkariak, Arabara bidaltzen dauan edizio berezian, urriaren 2-an lehenengoz atera dauan sail bereziari. Patata batzea, mahatsaren urritasuna, zuhaitz eta abere aldetik Arabaren egoera ta etorkizuna alpatzen ditu. Interesgarria sali hau, batez ere nekazariatzat.

## Euskal alfabetatzea Mondragoen

I haz\* bezala, aurten ere talde bi izanen dira. 6-14 urtekoentzat bat. Eta osterantzekoentzat beste bat. Beste toki batzuetan bezala, Mondragoen ere euskera irakasteko maisuen premia gorria dago.

## Euskal folklore ikasketak Errenderin (Gipuzkoan)

«Ereintza» taldeak eraturik, dantzan eta danbolin-txistua jotzen irakatsiko jake hurrei. Eta ez zaletasun hutsez, matrikulaturik, dirua ordaindurik eta seriotasun guztiarekin baino.

## «Elkartasuna» aldizkaria Arizkun (Nafarroan)

Hiru hilabeterik behin ateratzen dabe Arizkun aldizkari bat, erderaz eta euskeraz. Haren zuzendaria B. Socobehere Bidondo da.

## Berriz ere Aita Kardaberazi buruz

Hernanitik adierazi deusku gure adiskide Iñakik, ANAITASUNA-ren 195. zenbakian emandako albiste batean huts bat egin genudala. Harek dinoanez, Aita Kardaberaz ez da Errenderiarra, Hernanitarra baino. Bestalde, Aita Kardaberazi egingo jakon omenaldian, haren «jesuitatasuna» bakarrik aipatuko da, eta ez haren «euskal idazletasuna». Antolatzaileak, Udaleko gizonak eta eliz agintariak dira.

## Borddel bertsolariari omenaldia Luzaiden

Abuztuaren 23-an, Igandean, omenaldi bat egin jakon Borddel bertsolariari. Meza nagusia, dana euskeraz. Herriko Etxean, alkate jaunaren lehen hitzen ondoren, eta Juan Cruz Arrosagariren bertsoak entzundakoan, Sarrustegi Jauna «Borddel bertsolariaren bizitzeaz», eta Antonio Arrue «Borddel Donostian soldadu egon zaneko garaiaz» mintzatu ziren, Borddel jaiotetxean jarraiko irakurgarri hau jarri zan: «Borbdel Bertsularia, 1792-1897. Hemendik hartutako izena, ohorez\* eraman zuen gizona».

## Nafarroako Diputazioa Euskaltzaindiari lagutzen

Danak dakigun legez, Euskaltzaindiaren sortzetik, Euskal Herriko lau Diputazioek hartu eban euren babespean Euskal Akademia. Aurten, Nafarroako Diputazioak 15.000 pezetaz gehiagotuko dau bere urteroko diru laguntza. Aurrerantzean, 25.000 pezeta emango deutsoz. Begi onez ikusten dugu.

## Iruñean 15.000 bizilagunek egiten dabe euskeraz

Iruñean erlijio arazoetaz biziki arduratzen direnek dinoenez, 15.000 kristauek egiten dabe euskeraz Nafarroako huriburuan. «Euskaldun kristauek kontuan euki behar dira, nahi ta nahi ez», dino «La Verdad» izeneko hamabosterokoak.

## Baztango Idaz Sariketa

«Institución Príncipe de Viana» dalakoaren euskeraren aldeko sailak antolatutik, Baztan eskualdeko\* laguntzarekin, aurten ere Idaz Sariketa izan da. Sariketa honetan sartu eitekezen zazpi urtetatik hamabost urtetarateko haur baztandar guztiak; eta idazlanak, gertakari, sorgin kontu, ipuin eta beste holako gaiel buruz egin dira. Ihaz bezala, aurten ere Euskal Idaz Sariketa honek izan dau indarra, eta, egia esan, aurtengo lanak ihazkoak baino askoz hobeak izan dira.

Erratzutik 32 lan presentatu ziren, Arizkundik 18, Aniztik 6, Elizondotik 4, Lekaroztik 4, Arraioztik 2, Zigatik 2, Amalurtik 1. Guztitarra, 71 idazle. Juraduaren erabakia hauxe izan zan: Lehenengo, Norberto Agerre almandoztarra, «Kito trátularia» izeneko kontuarekin. Bigarren, Maria Teresa Iriarte arizkundarra, «Astoa ezkila josten» lanarekin.

Diputazioko aitzindari\* jauna mahaipuruko zalarik, sarien bana-keta egin ondoren, Urmeneta eta Hualde jaunek mintzalditxo bana egin eban, baztandar haurrak eta euskera goraitpatuz.

## Udaletxeko ikastola Azkoitian

Udaletxeko\* geletan hasi izan dira aurten eskolak, baina bi hizkuntzetan: gaztelera eta euskeraz. Nahi daben Azkoitiko haur guztiak joan daitezke. Jarraibide ederra beste Udal batzuentzat, haurren etxeko hizkuntza haintzat hartu eta laguntzea.

## Euskal alfabetatzea Beasainen (Gipuzkoan)

Euskaltzaindiko Alfabetatze Batzordeak antolatutik, euskeraz ez dakienentzako ikastaldiak emango dira Beasainen, 14 urtetatik gorako neska-mutilentzat. Beste urteetan bezala, ikastaldioek ikastolan izanen dira.

## «Ur» margolari taldea Gasteizen

Olagibel kalean, Herri Aurrezki Kutxak daukan kultura gelan, «Ur» izenarekin ezagutzen dan pintore taldekoek euren kuadroen erakusketa bat egin eban, irailaren 20-an. Hogeitabosgarren agerrialdia dala esan dabe. Margolariok giputzak dira, eta izenez: Xabier Arozena, Karlos Bigarrondo, Jose Garazena eta Alejandro Tapia.

## «Colección Navarra»

«Colección Navarra» izenarekin ezagutzen dan liburu sortan azkenengoz agertu diren liburuak jarraiko honek dira: «Efemérides Montañeras», «Malón de Echaide» eta «San Miguel de Aralar». Egileak, Daniel Bidaurreta, Carlos María López eta José María Jiménez Rubio dira. Bidaurretaren lanari aipagarria dala deritxogu. Mendigoizale jatorra izanik, bere lanean ez deusku orografia alderdia bakarrik erakusten, baita giza alderdia ere.

## Lizarran ikastola berria

Urriaren 5-ean hasiko da Lizarran\* herriko ikastola. Gogotsu agertzen da herri honetako jendea. Udalak ere bere laguntza eskaini dau. Andereño, Ana Berrojalbiz, Bizkaiko Garaltarra, izanen da. Ana, euskaldundu ahal izango dozu eskualde hori? Aurrera!

## Haurren Eguna Donostian

Donostiako Euskal Jaietan antolatutiko Haurren Idaz Sariketan, Santi Mozo Bakaikoa, Pasaitarra eta 8 urtekoa, atera zan txapeldun. Hona hemen haren bertso zenbait\*:

Jolas asko egiteko,  
niri jostailuak ekarteko,  
eguzki ona egiteko,  
nire etxea apaingutu egoteko,  
jolasetan ibiltzeko,  
Jiganteak ateratzeko.

# YUGOSLAVIAREN KONDAIRA GOGORRA

Yugoslaviako problemak behar dan neurrian hartzeko, Erresuma\* honen eta bere barruan bizi diren nazioen kondairari\* begiratu behar jako. Yugoslaviako errealidade sozial berria ere\*, kondairan zehar sortutako mugetan kuadrutzen da derrigorrez.

Danok dakigu, sozialismoak ere ezingo dauala ifernua zerutu. Umekeria hutsa da sozialismoa kritikatzeko, zerurik sortu ezin daualako. Ez dakit Thomas ala Heinrich Mann-ek esaten eban, gure mendearien\* bekatuak astunena antikomunismoa dala, eta oso oker ebilenik ezin esango da.

Baina hemen apaltasuna da lege, kondairaren barruan gagoz eta. Utopiak beste barik gauzakotzea ez da posible. Kondairak eskumenean utzi deuskuzan materialak eraikiko da etorkizuna, eta hau ez da izango ametsetan amets-egindako plangintzako bera. Amets inposiblea baitzan\* gudu ostean sozialista intelektualek eta partisanok idurikatutako Yugoslavia, batez ere haren batasuna. Izan ere, zer euken eskuetan, halako Yugoslaviarik egin ahal izateko? Ez eukengaz plan-egin eben eta, uts egin behar plangintzok.

## EKONOMIA

Trasporte bide txarrak dauka Yugoslaviak. Europako portu natural edo berezko onenak, hala ere. 1952-an, 68 % laborantzan ari\* zan. Baina Erresuma guztiko lur-zabalgoaren 38 % bakarrik egoen landuta; 31 % egur-baso zan, gainerakoa basamortu. Europako lurrazpirik aberatsenetakoa dauka Yugoslaviak, mea\* ondasun ugariak ta eskura-erazekoa: ikatza, bausita, burdina, beruna\*, Europako kobre ta kromo meatza\* handienak, uranio, eta abar. Industria bortitza\* Eslovenian, Kroazian eta Vojvodinako eskualde\* autonomoan (behinola Austriaren menpean egonak irurok).

Beraz\*, sozialistak nagusitu zirenean, ez euken komenientzia txarrik lehendik aurkitutako ekonomiazko aurrez-emanetan. Eta eman ere bultzada galanta eman eutsoen ekonomiar. 1952-1962 artean, munduko bigarren lekuan jarri zan Yugoslavia bizilaguneko produzio sozialaren geraldian (Japonen ondoren); hirugarren lekuan laborantza produzioan (Israel eta URSS-en ondoren); eta hirugarren lekuan, orobat\*, industria produzioan ere\* (Japon eta Bulgariaren ostean). Turismoak ere Europako beste inon baino arinago lgotzen dau urterik urte.

Lan arazoan antolaketan ere, autojestioagaz, sozialismo forma egokienetakoa sortu dabela esan behar da. Eta autojestioa ondorio guztiakaz (politikan batez ere) finkatzen danean, oraindino hobeto geratuko dala itxaron leiteke.

## KONDAIRA POLITIKAZKOA

Gogorra da Yugoslaviaren kondaira. Yugoslaviako Erreina 1918-an sortu zan, Gerra Mundialaren ondotik. Beti alboko Erresumen azpian edo azpira jausteko arriskuan egondakoa izanik, sozialistek gogorki eutsi deutsoe Yugoslaviaren autonomiar. Eguzkialde ta Mendebalaren\* artean sendo finkatu dau bere lekua Yugoslaviak, eta ez deuto Inori amore eman nahi. Nazio arteko politikan hori.

Nazio barneko politikan sortu dira gaitzaldi edo krisi larrienak. Yugoslavia mosaiko ezberdin bat da. Ez kulturen, ez erlijioen, ez ekonomian, ez hizkuntzan, ez kondairan, ez naziotasunean, ez dauka Yugoslaviak batasunik. Eta ideologia bat bakarrak eta Alderdi bat bakarrak ezarri leiskion batasuna franko artifiziola da. Ideologiaren eta Alderdiaren batasuna bera ere nahiko artifiziola dala esan behar, ta konpromiso batean oinarritzen da.

Barrizta-zaleek Alderdi-abar bakoitzaren beregalintasuna indartu gura leukee; unitaristek, berriz, Aginpide zentrala sendotu. Lehenengoak, Errepublikak lantegiztatu (Industrializatu) nahi leukeenak, katoliko ta Mendebal-zaleetan dira indartsu; bigarrenak, Errepublikak nekazariztatu gura leukeenak, ortodoxo ta Eguzkialde-zaleetan dira boteretsu\*. Bigarrenok besteon nagusi ibili dira kondairan; lehenengoak, oster, menperaturik egon dira mendez\* mende.

## KROAZIARREN ABERTZALETASUNA

Egunkariek\* Yugoslaviako zalapartaren baten albistek\* zabalzen dituenen, gehien gehienetan Kroaziako zerbaltegatik izaten da. Hemen dago problema gaitzen zuloa. Kroaziak burruka abertzale

luze ta gogorreko kondaira dauka. Industria bortitza, kasik Yugoslaviako turismo guztia, ta Alderdi Komunista dudu barik intelektuala (Tito kroaziarra da).

Agram-eko Egiune edo Tratuagaz sartu zan Kroazia SHS Erreina (Yugoslavian), 1918-an. Baina, 1921-ean egindako Herri Kostuzio zentralista ikusirik, SHS Erreinitik alde egin eta Erresuma libre bihurtu gura izan eban. Kroaziar Laborari\* Alderdiaren kontra onartutakoa, eta Serbiaren hegemonismoaren instrumentu agiria baitzan\* Kostuzio hori. Serbia Handi bezala antolatzen eban Kostuzio honek Yugoslavia, beste nazioen begirune barik. Kroaziak atzera egin gura izan ebanean, hala ere, harmaz eraso\* eutson Serbiak. Kostuzioa sortu ta lau egunera, odoletan errenditu eban Zagreb-en kroaziar abertzaleen oposizioa serbiar gudari taldeek.

1928-an, Radic abertzaleen Buruzagia ta beste diputatu bi tiroz josita hiltzen dira Parlamentuan. 1929-an Diktadura: zentralismoa gorengo gailurrera heltzen da, militarismoak lagunduta. Terrorre urteak, ondorengoak: A. Pavelic kroaziar faxista oposizio talde harmatuak sortzen ditu, Gobernuaren terrorreari terrorrez erantzuteko. Gogor zaleak nagusitzen dira politikazko arazoetan; eta ordurarte mugimendu abertzalea gidatzen eban ezkerlarrek, jarraitasuna gaitzen dabe herrian.

1933-an, kroaziar laborarien altxamentua zantpatzen dau serbiar harmadak\*, ikaragarriko odoletan. 1934-ean, Errege-Diktadorea hiltzen da, kroaziar abertzale batek (edo montenegrotar batek) asesinatuta. Terrorrea egunean baino egunean gogorrago bihurtzen da.

Gerra Mundiala hasten danean, bai Serblan eta bai Kroazian eskoitiarrak dabilta nagusi. Baina serbiar monarkikoek Hitler-en aurka erasotzen\* daben artean, Pavelic kroaziar nazismoari lotzen jako, abertzaletasunaren kausa nazismoari gomendatuaz\*. Titoren partisanok, horregatik, hiru arerlogaz burrukatzen eban: serbiar monarkikoan, kroaziar faxisten eta aleman harmadaren\* aurka. Lau frenteko etxe-gudutik urten eban, ba, Titoren Gobernu sozialistak, eta etxe-gudu kontsidera leiteken 25 urteko gogorraldiaren ondoren.

## SOLUZIO GAITZA

Honeek izan dira Yugoslaviaren batasunaren aurrez-emanak: guztiak guztien kontra, eta Leviathanik Leviathanena agintari. Nazioon bakezko elkar bizitarako Titok egin dauanarentzat ez dago gorazarre\* nahikorik.

Baina ilusio hutsa da, holakoxe aurrez-emanakaz ablatuta, urrunegi joan leitekela itxarotzea. (1966-an «Rankovic» arazoa izan zan. Lehendakari ordeko honek oster\* ere Serbia Handi-edo bihurtu gura eban Yugoslavia; eta ez eukan kezkarik, horretarako Tito bera iraultzeko ere. 1970-ean, «Zanko» arazoa izan da. Abertzalekerien faxismo kutsuak ere ez dira oraindino guztiz amatatu, emigranteen artean batez ere).

Guri iruditzen jakunez, Titok soluzio baterako oinarriak finkatu ditu; baina soluzioa ez da behin ta betiko asmatzen, beti berriro sortzen baino. Horregatik salatu gara, Yugoslaviako esturturetan dagozen zenbait problema erakusten.

JOSE AZURMENDI



**ELAIS ALAI**  
**YURRE**

DANTZA TOKI GOXOA      LASTER ZABALTZEKO

---

KAFETEGI      **AMA & LUR**      RESTAURANTA

## 500.000 HIPPY WIGHT-EN

Abuztuaren azkeneko egunak dira. Irakurtzen ditugun egunkariak honelako tituluak dakartzate: «El festival de Wight termina en caos». Eta gero, zenbait gazte drogatu, zalapartari eta iraultzaileren jaialdi bat izan zela dioskute.

Baina egia beste gauza bat da. 500.000 gazte (eta bostehun mila gazte ez da dozena bat) batu ziren Wight uhartearen. Eta gure egunkariak ez dira egia hau sakontzen ausartu, edo ez dute ausartu nahikoa izan.

Wight Britainia Handiko uharte baketsu bat da, 40 km. luze ta 23 km. zabal, 94.000 lagunaren bizileku. Bere industria nagusia turismoa da. Horretarako, turistak eroateko, Portsmouth-etik ferry bat dago.

Jaialdirako, «East Afton Farm» izeneko lurraldea aukeratu zen, Fresh Water herria. Guztitara, 4.400 m.<sup>2</sup>, zelai zabal batetan, mendixka baten magalean.

Han antolatu ziren dendak, garbitegiak eta, nola ez, jaialdirako toki berezi bat, zarratua.

45 izan ziren abeslari bakarrak eta kantari taldeak: 20 Ingelesak eta 25 ipar amerikarrak. Jaialdiaren ondoren egin den Hit Parade-an, lehenen ikusten dugu «Chicago» taldea. Gure artean ezagunenak direnak honela geratu ziren: 5. «The Who», 7. Jimmy Hendrix, 8. Donovan, 17. Joan Baez.

Abeslariak asko kobratu dute, Joan Baezek batez ere. Baina, entzun dugunez, Baezek (bere senarra gartzelan dago) protestari-entzatz eskaini ditu oso osorik bere irabazi guztiak.

Jaialdiaren antolatzaileek, 8.500.000 pezetatako galtzapena izan dutela esan dute; baina gero, diskoen saltzearekin eta han egin den filmearekin, hori ta gehiago batuko dutela uste da.

Joan den urtean, Burgosen, tribunal militar baten aurrean Josu Bilbao epaitua izan zen. Defentsako testigu lege, Gabriel Aresti zegoen. Hori fiskalak, «Pop» hitzak ea zer esan nahi zuen galdetu zion. Arestiren erantzuna: «Popular»-en laburpen bat.

Galde\* honi erantzutea ez da hain erraz, nire ustez. Inkonformista izatea ez da nahiko, inkonformista asko baitago\* hippy sentitzen ez diren artean ere. «Pot» (edo hashish zigarroak) erretzea, hau da, marihuana zale izatea ez da aski\*. «Maitasuna, musika ta bakea» atsegin izatea ez da nahiko.

Inkonformista batzuek ez dituzte gure gizarteko estrukturak onartzen, eta aldatu nahi dituzte. Eta aldakuntza horretarako, lan egiten dute, burukatzen dute. Eta arrisku haundirekin gainera, kasu askotan. Honelakoak dira, adibidez, «tumamaroak».

Hippiek gure gizarteko egiturak\* kritikatzen dituzte. Eta beren protesta adierazteko, «maitasuna, musika ta bakea» dute slogan bezala.

Gazte talde haundi ta isil hau ez da burrukalaria. Esplotatua da, eta hain zuzen, berak hainbeste kritikatzen duen gizarte berberaren aldetik. Zer izan da, bada, Wight uharteko jaialdi hori, hippiei kontsumoko gizarteak egindako esplotazio bat baino?

Hippiak ez dira tupamaroak, orain artean behintzat. Baina 500.000 gazte hoi protesta entzuten ez duenak ez du zuzur jotzen.

Marihuana ta lohikerien gainetik sakonera begiraturaz, zuzen\* dezagun denboraz gure gizartean oker dagoena.

XABIER GEREÑO

## LOREAK ETA AZAK

Iruñeko «Ipar» sortako 35. alea ikusgarria dozue. Manuel Iribarrenek «Escritores Navaros de ayer y de hoy» deritxona argitaratu dau. Sangotzako\* III. Lorajokoetan saria irabazi ebana. Loreak ez dakit zelakoak ziren; jokoa, bai; ederra egin deuskue, behintzat.

Egileak hitzaurrean dinoan, 1886. urtean, Nafarroan erdiek balno gehiagok egiten eben euskeraz. Harrezkero atzeraka doa han gure hizkuntza. Nondik norakoa ote dogu atzera egite hori? Iribarrenen iritziz, «...no obstante su venerable antigüedad, carece casi en absoluto de acervo literario que conservar y estudiar».

Ta lasal gizona. Edo artega\*. Campión datorrenean, bere euskerazkorik alpatu ere ez. Eta erderazkoei buruz ostopoak eta jartzen: ez dakitla neurria ta egi bidea gordetzen, alegia\*. Gudatean erre zirenak kontuan hartu gabe\*, horren gutxitxo daukagu euskaldunok? Izen-abizenekin hainbat izen alpatuta, ikusi dozue zertzuk dinozan Campión-egatik. Euskeraz idatzi dabenen artean, bat baino ez daktar: Fermin Irigaray. Baina, honeri ere joko ederra egiten deutso; euskeraz batez ere idatzi arren, erderaz ere zertxobait egin ebala ta, idatzi zerrendan erderazkoak bakarrik aipatu.

Horra: Nafarroa guztian, mendeen\* mendeetan, bat baino ez da agertu euskeraz idatzen. Besterik ez, Manuel Iribarren? Alferrik, guk dakigun lerrokada haundia ematen hastea.

Lorajoko horreen irabazleari ta Sangotzako antolatzaileei galdera\* bat: Horren txarto jakatu daualako sarizatu dozue Iribarren jauna, ala zuek bere ideien alde aterako zineela jakinik, aurkeztu zan lorajoko horreetara?

Zaldu ondo lorategi hori, loreak eta azak ematen dituan ez gero, aberasgarri ederra bilakatuko\* jatzue ta.

ETXEBARRIATAR JUAN ANJEL

## GURE EGOERAREN HESTE ERREBESA

Horrelakoak al gara gu? Ikus dezagun, besteek ikusten gaituzten bezala. Besteek, horko hoiak, ikusi nahi gaituzten bezala. Gizon gosetiak, gizon gezurtiak. Zernahitarako dugun luma langilea, luma zorrotza, gure hortz\* zorrotzekin hausnarrean erabilitako hitzen tresna trukagarria. Ez! Ez dauku kulturak ezertarako balio. Oi, euskaldunen artean jalo eta hilgo den euskaldun kume erdi lerdola! Ez dakigu nondik ekarritako harriez jalo den gaztelu eder honetako jauntxoa. Zertan ari\* ote da? Bai, bai, zurekin ari naiz. Zer ari zara jaten? Zerbait gozoa. Erromaterek baimena eman zutenean, kristautasunera bihurtutako zerbait jaten ari zara.

—Lehendabizian, batasunaren saltsa Euskaltzaindiaren erara.

—Bigarrenean, langileen haragi errea kultura gizonentzako.

—Hirugarren eta azkenik, norberak seriooki egin behar duen lana.

Giza-usaina. Gizonaren ezarria irekia da. Zerrauts-karkaxa, zigarroraren ke bero, lzerditsua, txapelaren lurruna, isurituak sagardoa, gizonen sagardoaren koloreko... hori, fermentatzearen mahats-kuzkurra.

Ezin nuen neure herri honetan ezer jan. Beronen gisako abere trakets honek tenedorea eta era honetako tresnak darabiltza. Mihia\* laborriz beteta, ahoan duena ahogoxatuz, bihotz-goxatuz. Zorroztuaz, zorrostuaz, aurrera, agure, zeure hortz zorrotzekin. Lehen eta gero. Janarien ondorengo, «Benedikatua zu, Jauna, janari hauk eskaini\* dauzkguzulako».

—Mizka ezazu platera, gizona! Goaz hemendik.

Eserita\* daudenei begiratu diet; baina ni dirurik gabeko goseti bat naiz, eta, logikarik gabea naizenez, zerbeza bat eskatu dut.

Horren gain, honelako hitz batzuk entzun behar izan ditut: «Ez diogu lagundu behar; izadiak eta ardoak beteko dute harena den lana». Eta hitz hauek hautsi-urratu naute. Izadiaren historia. Historiaren tristura. Tristuraren indarrak bultzatuta, zuen lehengo batean madarikatua izan. omen\* zen jakintsua, horrelako hitz zorrotzak erabiltzera. Iraultza!

Baina ni, egoera honen lehendabiziko argia nabaritzean\* haurdun\* bihurtu naiz.

ANJEL LERTXUNDI

## TOLOSA

Berazubi zelaietan, aspaldi ikusten ez genuen gauza ikusi dugu berriro: barra botatzalleak. Palankari batzuek beren lana pixka bat ahaztuta zeukatela ematen zuten; beste batzuek oraindik puntua hartu gabe zeudela ere bai. Hala ere, pozgarri zaigu berri hau. Lehengo larunbatean\*, dlogun bezala, salatu ziren gal horretan Loldi, Ganzarain, Jose Ramon González, San Nicolás eta beste asko. Ea Bizkal aldean ere sortzen diren Erauskineen ikasleak.

Euskal Herri guztiatik etorritako perretxiko zaleak ere etorri ziren gure herri honetara. Baita katalanak ere. Hau dela ta, hitzaldiak, argazki erakusketak eta abar izan ditugu. Gure basoak aspaldi honetan lehor samar egon arren, makina bat perretxiko bildu zan Tolosan. Jendea benetan salatu zen.

Hamabost urtetararteko euskal neska-mutleek beren Igerlari\* txapelketa ospatu dute.

Aldabako eskualdean\* festak izan dira. Zihur nago ez zela Inoiz ere hainbeste jende bertan bildu\*. Ezta horrelako jai jatorrik prestatu ere. Ba ziren bertsolariak, abeslariak, harri jasotzaileak, trikiti solnulariak, pelota partiduak, eta abar. Zorionak Don Joseri eta Aldabako gazteei.

Bestaldetik, Tolosar euskal idazle ospetsu bi sarituak izan dira. Antonio Maria Labaienek, «Gipuzkoa 70» antzerki saria irabazi du «Agaren seme Ismael» lanagatik. Eta Estanis Urruzolak, bigarren saria, Zarauzko Haur Ipuzen Txapelketan, «Martin Txinto, lorezal» lanagatik.

J.J. IRAETA

## BEDIA

Igaro dan Irallaren\* 8-an, «Lagun Onak» elkarteko gaztetxoentzako txistulari taldeak jardunaldi bat izan dau Lemonan. Hauxe izan da gaztetxo honeen bigarren ekintzaldia, eta ez geunke gura azkenengo izatea. Tamalgarria lizateke talde hua geure erruz gaitzea.

(Sei ta zazpigarren orrialdeotarako)

dakartzate, dakarrez.  
dauku, deusku.  
dauzkguzu, deuskuzuz.  
dezagun, dalgun.

diet, deutset.  
dlogu, deutsagu.  
dioskute, dinoskue.  
zion, eutson.

# BATASUNA BEHAR

Sevillarra eta gaztelaua ez dira berdín mintzatzen. Extremadura eta Aragoikoez ez dute berdín hitz egiten, ez eta Espainiako beste zenbait jendek ere, beren artean.

Baina bai batzuk ta bai besteak, idatzizko hizkuntza ofizial batek elkartzén ditu eta berdintzen. Hortxe, ofizial den hizkuntza batu batek elkarturik, batzen dira, elkar ulertzen dira, analitzen dira.

Zer bait kultura duenak ezin dezake «andaluzez» idatz, nahiz eta Granada edo Malagakoa izan, gaztelania\* ofizialean baizik. Sendagile batek, periodista batek, abogadu batek, edozein karta idazlek..., edonork, Espainia barruan ofizial den gaztelaniaraz eginen du. Hizkuntza batu horrexek batzen du Herri bat eta Indartzen ere, kulturari dagokion aldetik.

Batasuna indarra da, eta indarra osasuna. Osasunean dago hizkuntza baten iraupena. Hizkuntza erabili egin behar da, eta indartsu erabili gainera. Herrialde\* bakoitzak bere hizkera molde berezia izaten du, baina idatzizko hizkuntza bakar bat, horixe, batua, denentzat berdina izango dena. Hauzo eta hiri-berbeta bereziek, diren bezala berdín jarral lezakete, bakoitza bere molde zahar eta jatorrean ahoz aho bizi izanez. Baina idatziz? Idatziz, denek hizkera enbor\* berdín batean.

Ikus nola, bai katalanak bai galiziarrek bai eta euskaldunok ere, beste edozein erdaldun bezala, Espainian ofizial den gaztelaniarazko hizkuntza bakar horretan, espainol hizkuntza batu horretan, idatzera jarriak garen. Begira nola, bakoitzaren berezitasun guztien gainetik elkartzen gaituen eta batzen gaituen erderazko hizkuntza ofizial horrek. Elkarren artean ulerbide dugun mintzakera bakarra zaigu.

Nahi ta nahi ez, euskaldunok euskera batu bat behar dugu, euskaldun denontzat berdina izango zaigun euskera batu bakarra, bakoitzaren herrizulo hizkeratik at\* benetan ulerbide izanen zaiguna, euskaldun denontzako Euskera Ofiziala.

Betelu Nafarroako neska gazte bat Bilboko restaurant inportante batera neskame, kamarera, joana da. Han, Bizkaiko beste neskame euskaldun batzuk aurkitu ditu. Lehenengo, euskaldunak direla ta, euskeraz hasi dira; baina ezin elkar ulertu eta azkenean hona hemen neskame berri horrek eskatua: «Por favor, habládmelo en castellano, pues así nos entenderemos mejor».

Mila eta mila aldiz gertatzen zaigu Euskal Herrian horrelako joera negargarria.

Behin batean, aspaldi da, Santimamiñeko leze edo koba ikustera Joan ginelarik, tolosar anala bi gurekin zihozazen, eta, giltza-etekeekin hizketan egin nahirik, ez zuten tolosar hauek ezer ulertzen eta erderaz ere ari\* ziren; baina gu atzerago gentozen eta zoragarri jo genuen aurrera. Tolosarrek «tolosar» zikiten, baina horixe bakarrik. Gezurra dirudien arren, bataren eta bestearen erdian interprete bezala egin behar izan genuen eibartarrok, denok euskaldunak izanda!

Bai tolosar eta bai beteluar hori bezala, maiz ikusi ditugu euskaldunak, beren euskalkien ezberdintasunak eraginik, elkartzen dituen eta ulertarazten dituen hizkuntza bakar bati heltzen: erderari.

Zer esan, idazten jarri beharra izaten dugunean? Zela\* idatz hau? Nola adieraz beste hori? Zer modutan ulertuko ote daut? «Hobe izanen diat erderaz egin eta kito, hori bai seguru dela». Ai, euskaldun denok euskera batu batean idazten bagenek; ai, geure hizkera modu berezi bakoitzaren gainetik Euskera Ofiziala bagenu..., beste kuku batek joko luke.

Batasuna martxan dago. Ez dago geldi egoterik. Ez dago Herri analfabetuaren eskutan jartzerik, gure herri elbarria\* analfabetua baita\* bere hizkuntzan. Okerrak eginen dira, eztabaidak izanen dira, iskanbilak sorrazizko ditu euskera batu horri buruz egin nahi den bideak; zuzenketak egin beharra izanen da, ekipo baten lana izan beharko da besteok gidatuko gaituena; baina, dena dela, Euskera Ofizial bakar bat behar du Euskal Herriak.

Denok ikasi beharra izanen dugu. ANAITASUNA-k berak ere euskera batu hori hartuz, jo beharko luke aurrera, eta, pixkanaka pixkanaka, bizkaitar irakurleok ere ikasbidean jarri. Ikasi nahi dogunok sobera dakigu aldatz gora izanen dela; baina, euskera bakar eta ofizial batu bat behar dugularik, sport izpiritu batez ekingo diogu. Ez dezakegu elkar ulertu ezinean jarrai, sarri askotan baiturudi\* euskaldunok estranjeruak garela, geure artean elkar ulertu ezinik.

Batasuna behar. Alfabetatze lanak euskera batu batean egin ahal izango direnean, andereño eta irakasleek euskera batu horretan irakats dezaketenean, ikastoletan euskera bateratu horretantxe ikas daitekenean, elkarri euskera «bakar» batean idatz diezakeogunean, denontzako ulerbide bakar zaigunean..., orduan, ba dirudi, bai, euskera biziko dela.

Batasuna behar.

IMANOL LASPIUR

# KATEA LABUR ETA ESTRAMINA ALTU?

Heziketa\* arloa inoiz sakonki jorratu bada, azken denbora honetan izan da, eta ez bakarrik hezitzaileen aldetik. Maila guztietako jendea hor ibilli zaigu jo ta ke, «Liburu Zuria» eta Irakaskintzarako Lege Berria dela ta ez dela.

Lege Berri honi buruz hitz asko egin da, baita Iritzi asko zabaldu ere. Iritzi batzuk oso sakonak, eta beste batzuk badaezpada-koak.

Lege Berria lehengo lege zaharraren aldean askotaz aurrerakolagoa denik ezin uka, nahiz eta oso egokia denik ezin esan.

Lege Berriak alderdi asko ukitzen\* du; baina gehien gehien ukitu direnak eta jendeak gehien komentatu dituenak, irakaskintza-aren derrigortasuna eta dohakotasuna\* izan dira.

Derrigortasunari buruz berba gutxi egin liteke, jenderik gehiena horretaz akort baita\*. Beste alderdiak, dohakotasunak, zarata haundia atera du, eta era askotako iritziak daude. Batzuek diotenez: Irakaskintza Estatuak ordaintzen baldin\* badu, beronek jarritako kondizio guztiak bete beharko dira, eta hola irakaskintza guztia Estaduaren eskuetan oso osorik geratzen da, ikastetxeek behar luketen askatasuna galdurik.

Hortik kanpo, beste arazo bat ere ba dago, eta gogorra bera: diruarena. Nondik aterako da hainbeste diru? Zergetatik\*, beste biderik ez baitago\*. Baina, orduan, zer jazotzen da? Zure eskuetatik zuzen zuzen ordaindu beharrean, Estaduaren kutxetatik buelta egin da ordainduko dozula. Funtsean\*, bide bata zein bestea har, berdín zaigu.

Orain arte esan dugun guzti hau, 6 urtetarik 14 urtetararteko heurrei\* buruz esan dugu. Baina beste arazo bat ere ba dago: Eskola-aurretiko edo «pre-escolar» deritzan haroan aurkitzen diren haurrena; hau da, 2 urtetarik 6 urtetarartekoena. Hemen zer jazoko da? Nire Iritzi eta oraingoz behintzat, ez dela dohan izanen eta ofizialki ez dela jarriko, zeren eta Estaduak ez baitu\* arazo honi erantzuteko posibilitade jatorrik.

Dato batzuk presentatuko ditugu: «Enseñanza Elemental Básica» ematen den haroan (6 urtetarik 14 urtetara) 4.800.000 haur dabilta eta haiel erantzuteko 98.892 irakasle, hau da, irakasle bakoitzeko 48 haur (irakasle baten ardurapean 35-etatik gora haur egotea ez da batere egoki).

2 urtetarik 6 urtetararteko irakaskintzan, 2.400.000 haur sartuko lirateke (adin\* honetan dauden haurrak hauek dira); eta haur pilo honi erantzuteko —lehengo neurria harturik: irakasle bakoitzeko 48 haur— 50.000 irakasle beharko lirateke. Eta hemen beste problema bat sortzen da. Irakasle pilo hori nondik atera? Kontuan eduki behar dugu, 50.000 irakasle berri hau sortzen diren artean, lehengo 98.892-etarik batzuk hilak izanen direla eta beste batzuk erretratuak; eta, huts handirik egin gabe\* esan liteke, 20.000-tara helduko liratekeela, eta horrela lehengo 50.000 irakasle holk 70.000 izanen, hau da: gaur egunean eskoletan dabiltan irakasleen ehuneko 70 baino gehiago.

Zer egin orduan? Utopia bat legez hartu edo beste bide bat bilatu. Eta zein izan liteke beste bide hori? Kontuan edukitzekoa da, zeren eta...

Hara: «pre-escolar» delakoan jakatzeko eta behar den legez erantzuteko, ez da beharrezko jakituria nahiz titulu haundirik edukitzea, haur-sikologian ondo jantzita egonez gero (eta gal hau ondo sakondu beharko lukete); beste jakingaitan, matematikan kasu baterako, erdi maila bat nahiko dateke\*.

Bide hau aukeratuko ote da? Edo, bestela, nire lagun batek esaten duena: Katea labur eta estramina\* altu?

JOSEBA ARRIETA

## ADIZTEGIA

daude, dagoz.  
daut, deust.  
deritza, deritxo.  
dezake, daike.  
dezakegu, daikegu.  
dezakete, daikee.  
diat, joat.  
diezakeogu, deiskioгу.  
diogu, deustagu.  
lezakete, leikete.  
lukete, leukee.  
zaigu, jaku.  
zekiten, ekien.



# LUR

## kultura herriarrentzat

### Kriselu saila:

1. Gabriel Aresti Euskal Harria
2. Tomás Meabe Hamalau alegia
3. Gabriel Aresti Harri eta Herri
4. 5. Nekazariaren dotrina
5. J. L. Alvarez Elsa Scheelen
7. X. Kintana Beste izakia
8. Gaurko Euskal teatro berria
9. Zenbait estudiante gazte Azken garraisia
10. R. Saizarbitoria Egunero hasten delako
11. I. Sarasola Poemagintza
12. X. Gereño Argi bat iluntasunean
13. A. Lertxundi Hunik arrats artean
14. J. Mirande Lan hautatuak

### Laster agertzeko:

15. F. Kafka Itxura-aldaketa
16. G. Aresti Harrizko Herri Hau

## URRETXINDORRAK

### DISKA BERRIA:

1. AMATXO
2. NESKA ZAHARRAK
3. IGURIAKO BOLUAK
4. MENDI PUNTATIK

### Hastapenak saila:

0. Lehen hiztegui bateratua
0. Batasunaren Kutxa
1. R. Arregui Politikaren atarian
2. J. San Martin Euskeraren inguruan
3. R. Saizarbitoria. I. Sarasola, Urretavizcaya Mendebaldeko ekonomiaren historia
4. J. Leizarraga Euskal protestantismoa zer zen
5. P. Urkizu Literatura eta Kritika
6. A. Sagarna Soziologiaren hastapenak

### Laster agertzeko:

7. F. Fanon Afrikar iraultzaren alde
8. I. Sarasola. Euskal Literaturaren Historia laburra
9. X. Kintana Linguistika orain arte
10. Joxemiel Barandiaran Lehen euskal gizona

#### «ANAITASUNA BIZKAIA»

Zuzendaria: Anjel Zelaieta Gisasola

Idazkola ta banakola: Jardín Txikerra, 1  
Bilbao (12).

XIX. urtea, 177. zenb., 1970. Urrilak 15

D. L.: BI - 1.753 - 1967

Imprimatzailea: Imprenta AMADO. Bilbao.

Irarlea: RALI, Bilbao.










Sony da  
ametsaren izena



**Telebistarik arinena,  
Eskurakoiena**  
(Atzamar bategaz eustekoa)

SONY edozein tokitarako da  
SONY 4 kilo t'erdikoa  
SONY 9 arrako pantailaduna  
SONY aurrean jarritako abots gehizaileduna  
SONY tximist-indarrez nahiz  
bateriaz erabiltekoa  
SONY-k lau letra ditu:

# SONY

Bilboko ordezkari: J. M. Lara - Fica 8 - Tel. 239642 • Donostiako ordezkari: A. Mendizábal Obanos - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10811  
División Audiovisual: Telebista aparatuak, magnetofono ta videotape-rako orniduak • División Sobax: Elektro kalkulatuzaile eskurakoiak.


# GUZTIETARIKO ELEKTRODOMESTIKAK, SUKALDEAREN LAGUNGARRI



FRIGORIFICOS




BIOAUTOMATICAS



COCINAS



AEROCALENTADORES




ACONDICIONADORES



LAVADORAS DE AGITADOR



PLANCHAS




TERMOS



LAVAVAJILLAS

**Salneurri apartekoak  
1970**

**Edesa** 

*Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz*

1970-n egindako produktzio haundiarri eskerrak ditugu holako salneurriak.



